## KULTURA KLASIKOA

### SARRERA

Gizarte guztien aurrerapenaren oinarria zein den jakiteko, gizarte horien historia ezagutu behar da. Europako historian funtsezko garrantzia izan dute Greziako eta Erromako zibilizazioek, eta beraz, ezinbestekoa da haiek aztertzea eta ezagutzea.

Kultura Klasikoa irakasgaia ikastearen xedeak hauek dira: ikasleei beren inguruneko gizarteari, kulturari eta hizkuntzari buruzko ikuspegi zehatza eta kritikoa ematea; eta klasikoengandik jasotako kultura- eta arteondare guztia zaintzeko eta iraunarazteko interesa sustatzea.

Greziak eta Erromak bizitzaren eta kulturaren alor askotan egin duten ekarpena funtsezkoa da egungo Europako gizartearen oinarria ulertzeko, eta garbi erakusten du mundu klasikoarekin dugun zor handia. Hortaz, gaur egungo gizarteko eta politikako elementu askoren sustraiak zibilizazio klasikoan daude; esate baterako, demokraziaren kontzeptua, norbanakoaren eskubideak eta betebeharrak onartzea, babesten eta behartzen gaituzten legeak sortzea, etab.

Egungo munduaren egoera zientziaren alorrean izandako bilakaeraren eta aldaketen ondorioa da, eta haiek ulertzeko, ezinbestekoa da zimenduetara jotzea; hau da, Mendebaldeko zientziaren zimenduak eta zientzia-terminologiaren oinarrizko hizkuntzen zimenduak jarri zituztenen jakintza ezagutzea.

Halaber, grekolatindar zibilizazioa jarduera ugariren erreferentea da; besteak beste, arte-adierazpen, kirollehiaketa eta gaur egungo gizarte- eta kultura-jarduera askoren erreferentea, baita familiaren bizitzako, gizarteantolamenduko, politikako, zuzenbideko, ikuskizunetako eta dibertsioetako elementu askoren erreferentea ere.

Mundu klasikoaren ekarpen garrantzitsuenetako bat oso loturik dago gizakiaren ezaugarri nagusiarekin: hitz egiteko ahalmenarekin; hau da, hizkuntzarekin. Greziak idazteko sistema eraginkorrena eman dio Mendebaldeko historiari: alfabetoa. Hura da, hain zuzen, hizkuntza- eta kultura-ondarea transmititzeko bidea. Gainera, sistema lexiko hartara jotzen dute hizkuntza moderno guztiek, hitz-erroak behar dituztenean, ideia, objektu eta kontzeptu berriak adierazteko. Latinak jaso zuen aberastasun hura, eta Erromaren hedapen historikoari esker, latina asko zabaldu zen. Izan ere, Europako hizkuntza askoren jatorria izan zen, bai eta jakintza guztien erregistrorako eta transmisiorako erabili zen hizkuntza ere; hau da, kulturaren hizkuntza.

Argi dago greziera eta latina ikastea ez dela irakasgaiaren helburu nagusia, baina ezinbestekoa da hizkuntza

## CULTURA CLÁSICA

### INTRODUCCIÓN

El conocimiento de su propia historia constituye la base sobre la que se asienta el progreso de cualquier sociedad. La historia de Europa está marcada por las civilizaciones griega y romana, y su estudio y conocimiento se convierten, por tanto, en una necesidad ineludible.

El estudio de la materia de Cultura Clásica tiene como finalidad proporcionar al alumnado una visión más precisa y crítica de su entorno sociocultural y lingüístico, así como fomentar el interés por la conservación y mantenimiento de todo el patrimonio cultural y artístico heredado de los clásicos.

La aportación de Grecia y Roma en numerosos ámbitos de la vida y la cultura es fundamental para comprender la esencia que conforma la actual sociedad europea y pone de manifiesto la inmensa deuda que tenemos contraída con el mundo clásico. Así, son muchos los elementos de la sociedad y de la política actuales, como el concepto de democracia, el reconocimiento de derechos y deberes individuales, la creación de leyes que nos protegen y nos obligan, que hunden sus raíces directamente en la civilización clásica.

La evolución y transformaciones que en el campo científico han determinado la situación del mundo actual no serían comprensibles si se prescinde del conocimiento de quienes pusieron los cimientos de la ciencia occidental y de las lenguas que todavía hoy sirven de base para la terminología científica.

Asimismo, muchas manifestaciones artísticas, competiciones deportivas y otras actividades socioculturales actuales, así como numerosos elementos de la vida familiar, de la organización social, de la actividad política, del derecho, de los espectáculos y de las diversiones tienen como referente la civilización grecolatina.

Una de las más transcendentales aportaciones del mundo clásico está relacionada con la más importante de las características del ser humano que es su capacidad para expresarse, el lenguaje. Grecia aporta a la historia de Occidente el más eficiente sistema de escritura, el alfabeto, que constituye el vehículo de transmisión de su legado lingüístico y cultural. Supuso, además, la creación de un sistema léxico al que recurren, permanentemente, todas las lenguas modernas en búsqueda de raíces para expresar ideas, objetos o conceptos nuevos. La lengua latina fue la primera beneficiaria de esta riqueza y la expansión histórica de Roma extendió el uso del latín hasta el punto de convertirse en el origen de las lenguas de media Europa, y en la lengua que se utilizó para el registro y transmisión de todos los saberes, en la lengua de la cultura.

Aunque es obvio que el estudio del griego y del latín no es la principal finalidad de la materia, resulta inevi-

horietara hurbiltzea, haien sistema lexikora, batez ere. Ikasleek dakiten edo ikasten ari diren hizkuntzen ulermena eta ahozko adierazpena hobetu ahal izango dute, baldin eta hitzak eratzeko prozedurak, grekolatindar jatorriko etimologiak eta egungo terminologia zientifiko eta tekniko gehiena osatzen duen lexiko jasoa ezagutzen badute.

Bestalde, mundu klasikoa ezagutzeko iturri nagusiak literatura-iturriak dira. Grezierazko eta latinezko literatura-generoak eta haien edukiak Europako eta Amerikako literatura gehienaren erreferente nagusiak dira. Informazio-iturrietara jotzen jakitea, kasu honetan, grekolatindar egile garrantzitsuenen itzulpenen berri izatea da. Iturri mota horiekin lan egiteak, informazio garrantzitsua aukeratzeak eta informazio hori azaltzeak prestakuntza autonomoa eta kritikoa ematen diote ikasleari.

Irakasgai honetan, leku garrantzitsua izan behar dute Euskal Herrian dauden erreferentzia klasikoek; adibidez, testigantza idatziek, aztarna arkeologikoek, toponimia-terminoek, eta abarrek. Eduki mota horiek ikasiz gero, ikasleek hobeto ezagutuko dute beren burua, gizabanako nahiz kolektibo gisa, eta beren ondarea balioesten eta zaintzen ikasiko dute, bai eta beste herri eta gizabanako batzuei ezagutarazten ere.

Kultura Klasikoa aukerako irakasgaia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, eta ikastetxeek nahitaez eskaini behar duten irakasgaia da. Lau eduki multzotan dago egituratuta: Mundu klasikoa: Grezia; Mundu klasikoa: Erroma; Hizkuntza klasikoak: kulturaren transmititzaileak; Grekolatindar zibilizazioak egungo munduan bizirik irauteko tresnak. Horrela, zibilizazio klasikoei buruzko ikuspegi integratzailea lortu nahi da, historiaren, literaturaren, lexikoaren, artearen eta arkitekturaren edukiak aztertuz, eta Euskal Herriko ezaugarrien erreferentzia argiak eta agerikoak eginez, historia- eta kultura-ezaugarriak nahiz hizkuntza-ezaugarriak.

Bestalde, Kultura Klasikoa irakasgaiak, jakintza-alor askotara zabaltzen denez, diziplina arteko eduki asko lotzeko eta erlazionatzeko aukera ematen du, eta beraz, ikasleen prestakuntza integrala errazten du. Halaber, alor egokia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lantzeko: betebeharrez arduratzea eta eskubideak erabiltzea; kultura- eta hizkuntza-aniztasuna onartzea; besteen ideiak eta pentsamenduak errespetatzea; gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzea; eskolako lanak egitean, lankidetza, diziplina eta zentzu kritikoa izatea; etab.

Horrela, Kultura Klasikoa aztertuz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek grekolatindar zibilizazioaren ondare biziari buruzko jakintza eskuratu ahal izango dute (alderdi historikoak, artistikoak, zientifikoak, filosofikoak, juridikoak, politikoak, mitologi-

table iniciar un acercamiento a dichas lenguas, especialmente a su sistema léxico. El conocimiento de los procedimientos de formación de palabras, de las etimologías de origen grecolatino y del vocabulario culto que forman gran parte de la terminología científica y técnica actual permite mejorar la comprensión y expresión oral y escrita del alumnado en las lenguas que conoce o estudia.

Por otro lado, las principales fuentes para el conocimiento del mundo clásico son las literarias. Los géneros literarios griegos y latinos y sus contenidos forman parte del referente principal de la mayor parte de la literatura europea y americana. Saber acceder a las fuentes de información es, en este caso, conocer las traducciones de los principales autores grecolatinos. El trabajo con este tipo de fuentes, la selección de información relevante y su exposición forman autónoma y críticamente al alumnado.

Un lugar importante dentro de esta materia debe concederse al estudio de las referencias clásicas en el País Vasco, desde testimonios escritos a restos arqueológicos, términos toponímicos, etc. El conocimiento de este tipo de contenidos permite al alumnado conocerse mejor tanto individual como colectivamente, apreciando y conservando su propio patrimonio y dándolo a conocer a otros pueblos e individuos.

Cultura Clásica se sitúa en el espacio de opcionalidad del segundo ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria, como materia de oferta obligada para los centros. Se encuentra estructurada en cuatro bloques de contenidos: Mundo clásico: Grecia; Mundo clásico: Roma; Las lenguas clásicas como transmisoras de cultura y Pervivencia de la civilización grecolatina en el mundo actual. De esta forma, se pretende conseguir una visión integradora de las civilizaciones clásicas, estudiando contenidos históricos, literarios, léxicos, artísticos y arquitectónicos, y haciendo claras y evidentes referencias a las particularidades del País Vasco, tanto de tipo histórico y cultural, como de tipo lingüístico.

Por otro lado, Cultura Clásica es una materia que, por su apertura a muchos campos del conocimiento, permite la conexión y correlación de múltiples contenidos interdisciplinares y favorece, por tanto, la formación integral del alumnado. Es, asimismo, un área apropiada para el tratamiento de objetivos de la Educación Secundaria Obligatoria: responsabilidad ante sus obligaciones y ejercicio de sus derechos, tolerancia ante la diversidad cultural y lingüística, respeto por las ideas y pensamientos diferentes, diálogo para la resolución de conflictos, cooperación, disciplina y sentido crítico al elaborar trabajos de clase, etc.

De este modo, mediante el estudio de la Cultura Clásica, se podrá dotar a los estudiantes de la Educación Secundaria Obligatoria de un conocimiento suficiente sobre el legado que aún pervive de la civilización grecolatina (aspectos léxicos, históricos, artísticos, cientí-

koak, etab.), mundua hobeto ulertu eta kontzientzia historikoa eta ahalmen kritikoa sendotzeko.

Kultura Klasikoa irakasgaia gizarte-aurrerapena lortzeko eskaintza baliagarrietatik kanpo dagoela pentsa daiteke, «aurrerapen» terminoa, gaur egun, teknologiari eta etorkizunari lotzen zaiolako; eta «klasiko» terminoa, berriz, iraganari, zaharkituari. Baina kulturaren, gizartearen eta ekonomiaren aurrerapena beti egon da ulertzeko hausnarketaren mende, autonomia pertsonala eta norberaren pentsamendua ematen dituelako, eta horiek dira, hain zuzen, irakasgai honen berezko alderdiak. Azken batez, Kultura Klasikoaren edukiek ikasle guztiak izan behar dituzte kontuan, gerora izango dituzten ikasketa- eta lan-joerak edozein izanik ere. Horrez gainera, hizkuntzaren, pentsamenduaren eta kulturaren sustraiak ezagutzeko aukera eman behar die, eta beraz, mundu klasikoari buruzko jakintza orokorra eta bateratua eskuratzeko aukera.

## OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

Kultura Klasikoa ikasteak, halaber, zientzia- teknologia- eta osasun-kulturarrako gaitasuna eskuratzen laguntzen du. Ikasleak grekolatindar etimoak ikasi eta egungo hizkuntzekin alderatzen dituenean, eta irakasgaiko edozein gairi buruzko ikerketa-lanak egiten dituenean, azterketa-metodoak eta ikerketa zientifikoko metodoak erabili behar ditu; esaterako, konparazioa, dedukzioa, hipotesiak egitea, datuak baloratzea, etab. Halaber, hizkuntza zientifikoan eta teknikoan dauden grekolatindar etimoen berri izanez gero, hobeto ulertuko dituzte jakintza-alor horietako kontzeptuak, enuntziatuak, printzipioak eta teoriak.

Zientzia klasikoen eragina gaur egun ere hauteman daiteke, bai terminologian, bai zenbait diziplinatan; adibidez, medikuntzan, astronomian, matematikan… Izan ere, egungo zientzien garapenerako eta bilakaerarako oinarrizko eta funtsezko euskarriak izan diren kontzeptuak eta printzipioak gorde dituzte.

Kultura Klasikoak egoera fisikoa eta osasuna zaintzeko eta haietaz arduratzeko egin duen ekarpena ukaezina da. Esaterako, gaur egungo kirol-gertakizun garrantzitsuena olinpiadak dira, eta latinezko esapide ezagunenetariko bat «mens sana in corpore sano» da.

Kultura Klasikoaren ikaskuntza lagungarria da ikasleak jabe daitezen gizakia betidanik aritu dela ikasten, eta ikaskuntzaren oinarria aurreko ezagutzak izan direla. Ikasten ikasteko gaitasuna, bestalde, ikaskuntza erraztuko duten tresnak edukitzean datza, bai eta arazoen ikuspegi estrategikoa izatean eta gertatzen diren aldaketak aurreikusten eta haietara modu positiboan egokitzean ere. Hori guztia lortzeko, autonomiarako, diziplinarako eta hausnarketa kritikorako tresnak bultzatu behar dira,

ficos, filosóficos, jurídicos, políticos, mitológicos, etc.) para que puedan comprender mejor su propio mundo, fortaleciendo así su conciencia histórica y capacidad crítica.

La opción de Cultura Clásica puede parecer desconectada de las ofertas consideradas útiles para el progreso social, porque el término «progreso» se asocia generalmente, hoy en día, a la tecnología, a lo futuro, y el «clásico», a lo pasado, lo obsoleto; pero el desarrollo cultural, social y económico siempre ha dependido de la reflexión comprensiva, que proporciona una autonomía personal y un pensamiento propio, facetas en las que insiste especialmente esta materia. En definitiva, los contenidos de Cultura Clásica deben tener en cuenta a todo el alumnado, independientemente de sus futuras orientaciones académicas o laborales, y abrirle la posibilidad de conocer las raíces de su lengua, de su pensamiento y su cultura y, por tanto, de adquirir un conocimiento global y unitario del mundo clásico.

## CONTRIBUCIÓN DE LA MATERIA A LA ADQUISICIÓN DE LAS COMPETENCIAS BÁSICAS

Contribuye también a la adquisición de la competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud. El alumnado, especialmente al estudiar los étimos grecolatinos y compararlos con términos de las lenguas actuales y al elaborar trabajos de investigación sobre cualquier tema de la asignatura, debe utilizar métodos de análisis e investigación científica como son la comparación, deducción, realización de hipótesis, valoración de datos, etc. Asimismo, el conocimiento de los étimos grecolatinos presentes en el lenguaje científico y técnico ayuda a mejorar la comprensión de conceptos, enunciados, principios y teorías propios de estos ámbitos de conocimiento.

La influencia de las ciencias clásicas se puede observar, todavía hoy, además de en la terminología, en algunas disciplinas como la medicina, la astronomía, las matemáticas…, que conservan conceptos y principios que han sido pilares básicos y fundamentales en el desarrollo y evolución de las ciencias actuales.

La contribución, asimismo, al cuidado y preocupación por la condición física y la salud es innegable. Prueba de ello es que el acontecimiento deportivo más importante hoy en día son las Olimpíadas y uno de los lemas latinos más conocidos es «mens sana in corpore sano».

El estudio de la Cultura Clásica contribuye a que el alumnado sea consciente de que a lo largo de la historia de la humanidad el hombre siempre ha estado aprendiendo y ha basado su aprendizaje en los conocimientos anteriores. La competencia para aprender a aprender supone tener herramientas que faciliten el aprendizaje, pero también tener una visión estratégica de los problemas y saber prever y adaptarse a los cambios que se producen con una actitud positiva. A todo ello se contribu-

bai eta pentsatzeko, antolatzeko, memorizatzeko eta informazioa berreskuratzeko estrategiak ere; adibidez, laburpenak, eskemak eta kontzeptu-mapak.

Kultura Klasikoa ikasteak matematikarako gaitasuna garatzen laguntzen du, matematika modernoaren jatorria zein den jakiten laguntzen baitu. Matematikan eta beste zientzia batzuetan gaur egun erabiltzen diren printzipio eta teorema asko Greziako matematikariek garatu zituzten. Halaber, Kultura Klasikoari buruzko edozein ikerketa egitean, matematika-prozesuak ere erabiltzen dira; adibidez, ordena, logika, dedukzioa, arrazoiaren erabilera, etab. Gainera, matematika-hizkuntzan dauden etimo grekolatindarren berri izanez gero, hobeto ulertuko dira matematika-kontzeptuak, matematika-enuntziatuak eta beste matematika-eduki batzuk.

Kultura Klasikoa irakasgaia ikasteak modu eraginkorrean laguntzen dio hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari zenbait ikuspuntutatik. Hizkuntza klasikoak ezagutzen hastean ikasleak jabetzen dira Europako hizkuntza askok jatorri bera dutela, baita ikasten ari diren beste batzuek ere. Beraz, hizkuntza horiek zertan datozen bat ikasten dute, hizkuntza bakoitza nola bilakatu den, hizkuntzak zer geografia- eta gizarte-eremutan erabiltzen diren, bai eta hizkuntza-aniztasun horrek zer kultura-aberastasun dakarren ere. Ezaguera horrek hizkuntza guztiekiko interesa eta errespetua sustatzen du, baita antzinako eta gutxiengoaren hizkuntzekiko ere. Gainera, kultura- eta hizkuntza-desberdintasunetan oinarritutako estereotipoak baztertzeaz gainera, beste hizkuntza batzuen ikaskuntza errazten du.

Hitzak eratzeko prozedurak eta grekolatindar etimologiak ezagutzeak aukera emango die ikasleei ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko, zientzien eta teknikaren lexiko jasoa eta berariazko terminologia aztertuko baitituzte. Ikasleek jakintza hori zenbait ikasgaitan erabili ahal izango dute.

Irakasgai honen bidez, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasun garatzen laguntzen da; izan ere, irakasgai honen zati bat lantzeko, informazioa bilatu, aukeratu eta tratatu egin behar da. Gainera, ikasleek egingo dituzten lanetan zenbait jarduera azalduko dira (informazioa biltzeko, aukeratzeko eta aztertzeko jarduerak; sintesi-teknikak aplikatzea; hitz nagusiak identifikatzea; eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea), gaitasun hori bereganatzeko oinarrizko tresnak ematen dituztenak. Gaitasun hori oso loturik dago norberaren etengabeko prestakuntzarako trebetasunekin. Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informazioa unibertsal bihurtzeko tresnatzat eta eskuratutako jakintza komunikatzeko tresnatzat erabiltzen badira, teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna eskuratzen lagunduko da.

ye favoreciendo las destrezas de autonomía, disciplina y reflexión crítica además de estrategias para pensar, para organizar, memorizar y recuperar información, tales como resúmenes, esquemas o mapas conceptuales.

El aprendizaje de la Cultura Clásica contribuye a la competencia matemática en la medida en que ayuda a conocer el origen de la matemática moderna. Muchos de los principios y teoremas usados actualmente en matemáticas y otras ciencias fueron desarrollados por los matemáticos griegos. Asimismo, involucra en su estudio procesos inherentemente matemáticos como son el orden, la lógica, la deducción, el uso de la razón, etc., a la hora de realizar cualquier trabajo de investigación. Además, el conocimiento de étimos grecolatinos presentes en el lenguaje matemático ayuda a mejorar la comprensión de conceptos, enunciados y otros contenidos matemáticos.

El estudio de la materia de Cultura Clásica contribuye significativamente a la competencia en comunicación lingüística desde varios puntos de vista. La introducción al conocimiento de las lenguas clásicas despierta en el alumnado la conciencia del origen común de muchas de las lenguas de Europa y de algunas que son objeto de su propio estudio. Adquiere así conocimiento de las coincidencias lingüísticas entre ellas, de cómo han ido evolucionando distintamente, de los diferentes ámbitos geográficos y sociales en que se utilizan, así como de la riqueza cultural que esa diversidad lingüística supone. Ese conocimiento fomenta igualmente el interés y el respeto por todas las lenguas, incluso las antiguas y minoritarias, y el rechazo de los estereotipos basado en diferencias culturales y lingüísticas, así como facilita el aprendizaje de otras lenguas.

El conocimiento de los procesos de formación de palabras y de las etimologías grecolatinas proporciona una mejor comprensión y expresión oral y escrita al incorporar un vocabulario culto y una terminología específica de las ciencias y de la técnica, que el alumnado podrá incorporar a los estudios de las materias correspondientes.

Desde esta materia se contribuye a la competencia en el tratamiento de la información y competencia digital ya que una parte de ella requiere de la búsqueda, selección y tratamiento de la información. Además, las actividades relativas a la recogida, selección y análisis de la información, la aplicación de técnicas de síntesis, la identificación de palabras clave y la distinción entre ideas principales y secundarias en los trabajos que el alumnado realizará aportan instrumentos básicos para la adquisición de esta competencia, tan relacionada con destrezas para la continua formación personal. Por otra parte, en aquella medida en que se utilicen las tecnologías de la información y la comunicación como un instrumento que universaliza la información y como una herramienta para la comunicación del conocimiento adquirido, se colaborará en la adquisición de la competencia digital.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunari ere egiten dio ekarpena Kultura Klasikoak. Antzinako greziarren eta erromatarren erakundeak eta bizimoduak erreferente historikoak dira gizarte-antolaketarako, herritarrek bizitza publikoan duten partaidetzarako eta gizabanakoen eta taldeen eskubide eta betebeharren mugaketarako. Gizarteek zer bilakaera eta antolaketa izan duten, zer lorpen eta arazo izan dituzten jakitea lagungarri izango zaie ikasleei, gizartean moldatzeko. Horrela, balio demokratikoak eskuratzea sustatuko da; hala nola gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzea, besteen iritziak errespetatzea, ez diskriminatzea, etab.

Kultura Klasikoak giza eta arte-kulturarako gaitasunari zer ekarpen egiten dion jakiteko, Greziak eta Erromak gure herrialdean eta Europan utzi duten arkeologia- eta arte-ondare garrantzitsua ezagutu behar da. Horrela, artea aintzat hartu eta balioetsi ahal izango da, gizakiaren sortze-lana eta historiaren adierazgarri baita, eta aldi berean, ondare hori zaintzeko interesa sustatzen da. Halaber, balorazio kritikoak egiteko erreferentziak ematen ditu, bai kultura eta grekolatindar mitologian oinarritutako ondorengo arte-lanei buruzkoak, bai komunikabideek zabaldutako mezuei buruzkoak; izan ere, kasu askotan, oinarri ikonikoa errepertorio klasikotik hartzen dute. Horrez gainera, mundu klasikoa ezagutuz eta iraunaraziz, ondorengo literaturaren interpretazioa errazten da, gaiek, arketipoek, mitoek eta topikoek luzaroan irauten baitute literaturan. Gainera, irakurtzeko interesa, testuen balio estetikoaren balorazioa eta literaturarako zaletasuna garatzen dira.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunari ere laguntzen dio Kultura Klasikoak. Izan ere, planifikatzea, aukerak ebaluatzea eta erabakiak hartzea eskatzen duten prozedurak erabiltzen dira. Banakako edo taldeko lanak azaltzeak eta eztabaidak egiteak berekin dakar ikaskideen ekarpenak balioestea, egin daitezkeen hutsegiteak onartzea, haiek zuzentzeko modua ulertzea eta emaitza desegokiei aurre egitea. Azken batean, hobetzeko aukerak ematen ditu eta hobetzeko grina sustatzen du.

HELBURUAK

Kultura Klasikoaren ikaskuntzaren helburua honako gaitasun hauek lortzea da:

1. Mundu klasikoan murgiltzea, kultura-gertakariak (literaturakoak, artistikoak, politikoak, filosofikoak, zientifikoak, etab.) eta Grezian eta Erroman izandako gizarte-aurrerapen adierazgarrienak ezagutzeko eta ulertzeko.

2. Europako zibilizazioaren egitura sakona baldintzatu duten Greziako eta Erromako kulturan eratutako ideiek, sinismenek, ohiturek eta balioek gaur egungo Mendebaldeko gizartean eta kulturan bizirik dirautela hautematea.

La contribución a la competencia social y ciudadana se establece desde el conocimiento de las instituciones y el modo de vida de los antiguos griegos y romanos como referentes históricos de organización social, participación de los ciudadanos en la vida pública y delimitación de los derechos y deberes de los individuos y las colectividades. El conocimiento sobre la evolución y organización de las sociedades, de sus logros y de sus problemas, ayudará al alumnado a desenvolverse socialmente. Se fomentará así la adquisición de valores democráticos como son el diálogo en la resolución de conflictos, el respeto hacia las opiniones distintas a las propias, la no discriminación, etc.

La contribución de la materia a la competencia en cultura humanística y artística se logra mediante el conocimiento del importante patrimonio arqueológico y artístico griego y romano en nuestro país y en Europa, que potencia el aprecio y disfrute del arte como producto de la creación humana y como testimonio de la historia, a la vez que fomenta el interés por la conservación de ese patrimonio. Asimismo, proporciona referencias para hacer una valoración crítica de creaciones artísticas posteriores inspiradas en la cultura y la mitología grecolatinas, o de los mensajes difundidos por los medios de comunicación que, en muchos casos, toman su base icónica del repertorio clásico. A su vez, con el conocimiento del mundo clásico y su pervivencia se favorece la interpretación de la literatura posterior, en la que perduran temas, arquetipos, mitos y tópicos, a la vez que se desarrolla el interés por la lectura, la valoración del carácter estético de los textos y el amor por la literatura.

La materia contribuye al logro de la competencia para la autonomía e iniciativa personal en la medida en que se utilizan procedimientos que exigen planificar, evaluar distintas posibilidades y tomar decisiones. La exposición de trabajos individuales o en grupo y la realización de debates implican valorar las aportaciones de otros compañeros, aceptar posibles errores, comprender la forma de corregirlos y no rendirse ante un resultado inadecuado. En definitiva, aporta posibilidades de mejora y fomenta el afán de superación.

OBJETIVOS

La enseñanza de Cultura Clásica tendrá como objetivo el logro de las siguientes competencias:

1. Introducirse en el mundo clásico para conocer y comprender los fenómenos culturales (literarios, artísticos, políticos, filosóficos, científicos, etc.) y los adelantos sociales más significativos acontecidos en Grecia y Roma.

2. Reconocer en la sociedad y la cultura actual occidental la pervivencia de las ideas, creencias, costumbres y valores conformados en la cultura griega y latina que han condicionado la estructura profunda de la civilización europea, valorándolos y juzgándolos críticamente.

3. Greziako eta Erromako kulturen garapenaren oinarrizko prozesuak ulertzea, haien erreferentziak identifikatuz, alderatuz eta sailkatuz. Erreferentzia horiek literaturatik, artetik eta arkeologiatik aterako dira gehienbat.

4. Arrazoiak emateko eta kritika egiteko gaitasuna garatzea, Euskal Herriko kultura-tradizioa ezagutuz eta kultura-tradizioarekiko interesa eta errespetua sustatuz.

5. Hizkuntza-aniztasunari loturiko kultura-aberastasuna hautematea eta balioestea, Europako hizkuntza gehienek jatorri bera dutela jabetzea eta grekolatindar tradizioak euskaran izan duen eragina balioestea.

6. Hizkuntza-alorrean oinarrizko prestakuntza lortzea, gaztelaniaren eta euskararen ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko, baita ikasleek ikasten dituzten hizkuntza guztiena ere.

7. Nork bere hizkuntzaren terminologia eta grekolatindar jatorriko hitzen esanahia identifikatzea, hala lexiko arruntena, nola egungo terminologia zientifiko eta tekniko gehiena osatzen duen lexiko jasoarena.

8. Hizkuntza klasikoek terminologia berriak sortzeko eta objektu berriak eta aurkikuntzak izendatzeko duten bizitasuna egiaztatzea, eta egungo hizkuntzak garatzeko eta bilakatzeko baliabideak direla aintzat hartzea.

9. Euskal Herrian mundu klasikotik jaso den kultura-, arte-, historia- eta arkeologia-ondarea balioestea eta errespetatzea, ondare hori zaintzeak dakarren ardura onartzea eta ondarea balioestea, gozatzeko iturria eta norberaren eta taldearen garapenerako baliabidea den aldetik.

10. Kultura klasikoaren ondarea aztertzeaz interesa izatea, harekiko jakin-mina garatzea eta hura zaintzen eta hobetzen modu eraginkorrean laguntzea.

11. Kultura klasikoaren alderdiei buruzko ikerketalan txikiak egitea banaka edo taldeka, informazioa iturri tradizionaletatik eta gaur egungo informazioaren eta teknologiaren teknologietatik atereaz.

EDUKIAK

1. multzoa. Mundu klasikoa: Grezia.

– Greziaren jatorria. Grezia klasikoa: geografia eta historia. Eskualde eta enklabe nagusiak. Etapa eta gertakizun historiko nagusiak.

